

Koronabirusak ekonomia garatuen susperraldia bertan behera utzi du


Martxoko PMI indize konposatua Eurogunerako argitaratzeak aurreko hilabeteetan eremu horretako ekonomiak erakusten zuen susperraldi leunari amaiera eman dio. Hain zuzen ere, hileko horri esleitutako balioa (31,4) serie historiko osoan, 1998an hasi baitzen, aurkitzen den baxuena da. 2009ko Atzeraldi Handian ezagututako edozein erregistro baino txikiagoa ere bada.

Mesfidantza manufakturetan zein zerbitzuetan nabari da, baina bereziki azken sektore horretan gauzatu da beherakada nabarmenena. Kontsumora bideratutako jarduerak, hala nola bidaiak, turismoa eta ostalaritza, dira irudi hondatuena eskaintzen dutenak. Aurrekoaz gain, enplegu adierazleek ere okerrera egiten dute.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2020ko MARTXOA


31,4




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI indizeetatik ondorioztatzen den ekonomiaren okertzea ez da Europako herrialdeen artean bakarririk gertatzen, baizik eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, gainerako ekonomia garatuetara ere hedatzen da. Adibidez, AEBetan adierazlea 49,6tik 40,5era igaro da, atzeraldi esanguratsua aurreikusten duen egoera batera, alegia. Japonian beherakada hamaika punturaino iritsi da eta 35,8an dago. Erresuma Batuak hobekuntza nabarmena izan zuen urtarrian eta otsailean (53 puntuetatik gora zegoen), baina martxoan behera egin du (37,1 puntu). Aipatutako herrialde guztietan, eta baita Frantzian eta Alemanian ere, zerbitzuak manufakturak baino nabarmen gehiago okertu dira.


PMI KONPOSATUA. JAPONIA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.